

romi etxea PROIEKTUA

Inguruan ditugun material merke eta errazekin autoeraikuntza ikastaroa Astigarragan

Buztina, lastoa edo neumatikoak erabilia auto-eraikuntzaren nondik norakoak ikasiko ditugu ikastaro hauetan. Gainera Astigarragako Romi komunitateari lagunduko diogu ezagutza hauek ikasi eta komunitatearentzako areto sozial bat eta komun ekologiko lehorrak izango dituen eraikinak altxatzen.

Errumaniatik bizitza hobearen bila etorri dira Romiak. Astigarragatik, Loiolatik, Martutenetik eta Hernanitik kanporatu dituzte eta Astigarragara itzuli dira, autobidearen zubipera. Oraingoan ez bidaltzea erabaki du Udalak eta bost urteko proiektua prestatu du Eusko Jaurlaritzarekin, Foru Aldundiarekin eta Romi Bidean elkartearekin batera. Romiek hainbat baldintza bete beharko dituzte orain dauden egoera prekariotik atera nahi badute.

1. IKASTAROA - 2013ko Irailak 10 eta 14 bitartean.

Rikki Nitzkin eta Marco Aresta irakasleen gidaritzapean eraikinak egiteko teknikak ikasiko ditugu. Ikastaroan zehar klase teoriko eta praktikoak izango ditugu horretarako egokitua izango den areto batean. Ikastaro honen prezioa:

Ikastaroa soilik	300 €
Ikastaroa+5 egunetako bazkaria	300 € + 50
Ikastaroa+5 egunetako otorduak (gosari-bazkari-afari)	300 € + 100
Ikastaroa +5 egunetako Pentsio osoa (otorduak+lo egiteko tokia)	300 € + 125

2. IKASTAROA- 2013ko Irailak 17 eta 21 bitartean.

Ikastaro hau bereziki praktikoa izango da. Lehenengo ikastaroan ikasi eta egindakoarekin jarraituko dugu, eraikinak ahalik eta bukatuen uzteko.

Ikastaro honen prezioak:

Aurreko ikastaroa egin dutenak	100 €
Ikastaro osoa	200 €
Ikastaroa+5 egunetako bazkaria	200 € + 50
Ikastaroa+5 egunetako otorduak (gosari-bazkari-afari)	200 € + 100
Ikastaroa +5 egunetako Pentsio osoa (otorduak+lo egiteko tokia)	200 € + 125

Izen emateak:

Aurre-izen emate formularioa www.astigarraga.net web orrian eskuratu daiteke, eta honako helbidera bidali behar da: romi.etxea@gmail.com



Romi Bidean

